

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure proiektua aurrera eramateko baliabide asko beharko ditugu. Hurrengo baliabide-zerrenda bat da, beharrezkoak diranak gure proiektuak funtziona dezan.

### **Baliabide fisikoak:**

- **Lokala;** lokala gure proiektua gauzatu ahal izateko behar dugun espazioa da, hor egingo dugu lan. Gure kasuan, lokala gure bazkide baten garajea izango da, Alonsotegin dagoena.
- **Ordenagailuak;** ordenagailuek funtsezko funtzioa beteko dute gure proiektua app bat delako, beharrezkoak izango dira diseinatu eta enpresa aurrera eraman ahal izateko. Guk gure proiekturako 2 erosiko ditugu
- **App-a;** gure proiektuak app baten bidez funtzionatuko du; beraz, jakina, ezinbestekoa da app bat izatea.
- **Softwarea;** app bat garatzeko software egokia erabili behar da, gure kasuan Quixy erabiliko dugu.

### **Baliabide intelektuala:**

- **Patenteak;** gure ideiak patentatuak izango dira beren esklusibotasunaz gozatu ahal izateko, beste enpresa batzuek kopiatzeko arriskurik ez izateko.
- **Gure ezagutza:** Gure proiektuaren funtzioak bete ahal izateko, gure ezagutzaz baliatu beharko gara. Horrek gure ezagutza teknologikoa barne hartzen du, baina baita gure gizarte-ezagutza ere, gure app-a sustatzeko balioko diguna. Kontuan hartuta proiektuko partaide guztiak sare sozialak erabiltzen dituzten gazteak garela, eta gutako gehienak emakumeak, badakigu nola ezagutarazi gure app-a.

### **Giza baliabideak:**

- **Langileak eta gure lana;** Gure proiektuaren kasuan, bi kategoria horiek berdinarak dira, gu geu izango baikara langileak. Gure zereginak asko izango dira. Hala ere, funtzioaren arabera, lana honela kategoriza dezakegu: lan teknikoa (app-a diseinatu, programatu eta funtzionatzen duela ziurtatu) eta publizitate-lana (marketina). Zehazteko, Ariane izango da marketineko arduraduna, sare sozialen eguneratuta dagoelako eta pertsonekin ondo komunikatzen delako. Ane arduratuko da diseinuaz, ondo ematen baitzaio artearekin eta diseinuarekin zerikusia duen guztia. Ekain izango da taldearen programatzailea, ordenagailuekin erraztasuna baitu. Azkenik, Irena arduratuko da kontabilitateaz, zenbakietan aditua delako.

### **Finantza baliabideak:**

- **Gure ekarpena;** bakoitzak 10000€ jarriko ditu sozietate mugatu bat sortzeko, 4 bazkide garela kontuan hartuta, guztira, 40000 € izango litzateke.
- **Mailegua;** Proiektuaren hasieran, gauzatu ahal izateko, 60.000 euroko mailegua eskatuko diogu bankuari.
- **Diru-laguntza:** Gure aplikazioak emakumeen segurtasuna eta ongizatea sustatzen duenez, 1200 euroko dirulaguntza eskatuko diogu Espainiako berdintasun Ministerioari. Honek diru laguntzak eskaintzen baitauz genero berdintasunaren proiektuak aurrera eramateko.